Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko otsailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko otsailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 582 izan da, urtarrilean baino 251 gutxiago eta joan den urteko otsailean baino 423 gutxiago. Egunean bataz bestez 293 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 14 eskaintza gutxiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemia kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko otsailean 87 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 219 Gipuzkoan eta 285 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 49,0 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 36,1 Gipuzkoan eta % 15,0 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 17,1 murriztu dira eskaintzak (18 eskaintza gutxiago), Bizkaian murrizketa % 3,7koa izan da (11 eskaintza gutxiago) eta, azkenik, Gipuzkoako bilakaera izan da aipagarriena ,% 51,4ko murrizketa izan baitu (222 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, lurralde guztietan murriztu dira eskaintzak. Araban 66 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 43,1eko murrizketa; Gipuzkoan 165 eskaintza gutxiago jaso dira, % 44,0ko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 192 eskaintza gutxiago izan dira, % 40,3ko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. %21,0a, tekniko zientifikoko lanbide-profilerako erregistratu dira (122 eskaintza); eta, %19,3a, industriako langileen profilerako (112 eskaintza). Laguntza teknikarien, administrarien eta zerbitzuen profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 108, 73 eta 70 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 1 eta 6 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, profil guztietako eskaintzak murriztu dira, administrarien profilekoak izan ezik; hauen kasuan, 6 eskaintza gehiago erregistratu dira. Balore absolutuetan, gehien murriztu den profila ez kualifikatuena izan da (120 eskaintza gutxiago, % 69,4ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarienak izan dira, % 85,7ko murrizketa (6 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintzak profil guztietan murriztu dira. Balore absolutuetan, zerbitzuen profileko eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (130 eskaintza gutxiago, % 65,0ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarienak izan dira (% 83,3ko murrizketa, 5 eskaintza gutiago) .

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 15,0k kontratu mugagabea eskaini dute; % 82,3k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 2,8k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 87 izan dira, 15 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %20,8ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 272 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 479 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 36,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko otsailean 16 izan dira, aurreko hilean baino 6 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 60 gutxiago izan dira (% 40,8ko murrizketa), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 43,5 murriztu dira; 368 eskaintza gutxiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz,5 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2021eko otsailean erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (393 eskaintza, %67,5) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 15,5k (90 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 3,8ko pisua dute (22 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,3ekoa da (2 eskaintza).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira, 3 eta 5 urte arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan ezik (5 eskaintza gehiago erregistratu dira). Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 6 hilabete baino gutxiagoko eskaintzak izan dira (235 eskaintza gutxiago, % 37,4ko hazkundea); aldiz, balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 50eko murrizketa, 2 eskaintza gehiago.

Urte arteko eboluzioari dagokionez, adin tarte guztietan murriztu dira eskaintzak. 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira beherakada haundiena jasan dutenak balio absolutuetan (304 eskaintza gutxiago, %43,6ko beherakada). Aldi berean, balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia dutenak izan dira gehien murriztu direnak (%50,0ko jaitsiera, 2 eskaintza gutxiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezala.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,9ak zehazten du datu hori (582 eskaintzetatik 75). 75 eskaintza horietatik, 59 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 16k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak bat gehiago izan dira urtarrilarekin alderatuz, hau da, % 1,7 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 6 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 60,0koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 55 gutxiago izan dira (% 48,3ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 21 eskaintzakoa izan da beherakada (% 56,8ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 4 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 5 eskaintza gutxiago, eta 2020ko otsailean baino 16 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 582 eskaintzetatik 108k soilik zehaztu dute.



108 eskaintza horietatik, 44k unibertsitatekoko prestakuntza maila eskatu dute (% 40,7); eta beste 41ek LHko ikasketak (%30,6). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 19 eskaintzekin (% 17,6). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (4 eskaintza, % 3,7).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza guztiak murriztu dira unibertsitateko ikasketak izan ezik (7 eskaintza gehiago). Balio absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak (9 eskaintza gutxiago, % 19,0ko murrizketa); aldiz, balio erlatiboetan, oinarrizko prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 29,6ko hazkundea, 8 eskaintza gutxiago).

2020ko otsailarekin alderatuz, gehien murriztu diren eskaintzak LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira balio absolutuetan (30 eskaintza gutxiago, % 42,3ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, batxilergoko prestakuntza maila eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (6 eskaintza gutxiago, % 60,0ko beherakada).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura-industria izan dira; honen pisua eskaintza guztien % 15,6koa izan da (91 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, merkataritza, jarduera profesional zientifiko eta teknikoak eta eraikuntza izan dira, eskaintzen % 13,2, % 10,8 eta % 10,3ko pisuarekin (77, 63 eta 60 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza gehienak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, osasun jarduerak izan dira (116 eskaintza gutxiago, % 76,8ko hazkundea); aldiz, murrizketa handiena izan dutenak, balore erlatiboetan, administrazio jarduerak izan dira (% 68,1eko murrizketa, 98 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak jaitsi dira. Bilakaera okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, manufaktura-industriakoak izan dira (90 eskaintza gutxiago, % 49,7ko murrizketa); ondoren, ostalaritzakoak izan dira (63 eskaintza gutxiago, % 70,8ko murrizketa) eta merkataritzakoak (62 eskaintza gutxiago, % 44,6ko murrizketa).